



ZORTZI EMAKUME SOINKETA GELAN

Pilates, aerobik eta mantentze soinketako eskolak izan dituzte Areson martxo eta maiatza bitartean >6

TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO

hitza



Igandea
2009-06-07

VIIURTEA 1.722.ZENBAKIA
ESKUALDEKO EGUNKARIA

WWW.TOLOSALDEKOHITZA.INFO



Hamabost kilometro inguru egin zituzten zaldunek Leaburura heldu aurretik. ESTI EZEIZA

GIRO APARTA 41. ZALDUNEN ESKUTIK

LEABURU Gaztelutik Leabururainoko bidean zaparradak harrapatu zituen, baina oro har eguraldi ona izan zuten II. Zaldi Egunean 4



Jendearen ikusmina piztu zuen lehen batel lehiaketak. ESTI EZEIZA

Estreinakoz, koadrilen arteko batel lehiaketa

ANOETA Jaien atarian, Koadrilen Eguna ospatu zuten atzo; lau taldek hartu zuten parte Orian 5

**Getariako
bikotea irabazle
III. Emakumea
Pilotari Eguneko
finalean**

IRURA 80 emakume inguruk ospatu zuten eguna atzo 5

**Juan Joxe
Agirre fraide
beneditarrek
IX. Manuel Irujo
saria jaso du**

ALEGIA Atzo eman zioten saria alegiarrari, Lizarran 4



TOLOSALDEA

GOIMAILAKO L.H.
INSTITUTUA



**ziklo guztiak
euskaraz**

Zure etorkizuna ziurtatzen dugu!

GOI-MAILAKO ZIKLOAK

Aurrematrikula Ekainak 1etik 12ra

- Fabrikazio Mekanikako Produkzio Programaketa
- Informatika Sistemen Administrazioa
- Administrazio eta Finantzak

- Instalazio Termikoko eta Fluidodun Mantentzea
- Erregulazio eta Kontrol Sistema Automatikoak
- Metal Eraikuntza

943 65 11 47 • www.tolosaldea.com

Mugikorrean informazio gehiago
Mezu bat bidali: **TOLOSALDEA** idatziz 5533ra

Desagertzearen liburua VII



» Uzturretik

Koldobika Jauregi

Uharte bakarti honek txapela baten forma eduki beharko luke, euskalduna naizelako eta ni bakarrrik nagoelako eta noski, neronek erabakitzen dut zein da uharte honen forma.

Batzutan ordea ez nago ziur gau ilunetan ez ote da harri Estela bihurtzen.

Euskal herria zen garai hartan, sasi jende gehiegi zebilen esaka, zer egin behar genuen, politikari gehiegi.

Bertako aztiak, kantore eta poetak, hargin eta arrantzale, nekazari eta leku sakratuak desohore-atzea eraman zituzten. Kanpoko aztiak beti hobeak, globalizazio aztiak handienak bihurtu ziren handien artean, eta gu, guri beti atzeko atea ixten harrapatzen gaituzte.

Lizardi, Mirande, Laboa eta abar ez dituzte beraiek baztertu,

baizik eta guk ahaztu ditugu beraien poez.

Martxa honetan gertatuko da laster Esteletan euskaraz idatzirik dauden testuak ezingo ditugula itzuli Roseta harri batekin ere.

Eta denbora... bazihon eta ziriudien ez zela ezer gertatzen, erreka-ko urak pasatzen diren moduan, behin eta berriro, ezberdinak izanik betikoak diruditenak... eta nekea.

Batzutan kolpez esnatzen naitzen nabari dut euskal herri Estelaren karga... eta nekea.

Era berean ba dirudi Estela hau harrizkoa ez ezik, azukrezkoa dela eta hau kafesne batean urtzen den moduan horrela urtzen ari dela gure kultura ere.

Onartu beharra daukat gizon bakarti batek, gauza gutxi egin dezakeela bere kume garaietako euskararen hitz laztanak salbatzeko gizarte basati honetan.

Buru hausnarketak izatea honelako gauzak dakartzkie, eta txapel uhartea, batzuetan biniloko diskoa beltz handi bat bihurtzen da eta Ben Websterrek saxoa jotzen du jazza kontzertu batean... bira eta bira.

Neure ama hil zen garaiari heberriaren desagertzeak kezkatzen

ninduen eta bat bateko desagertzearen izu ostikada sentitu nuen. Zeren desagertze liburu honetan, bizitza desagertzearen beldurra ere agertzen da eta bat batean giñoletako txotxongilo gaiztoak baino okerrago sentitzen gera Kolori- nek makila hartu eta kaska hezur- rean ematen digunean.

Zeren kulturalki desagertzea baino okerrago, fisikoki desagertzea dago, ezin ukatu animaliak gara- rela, eta horrek bai kezkatzen gaituela.

Hemen nengoen egun bero batean, aurreko soroei begira, bizia non nahi, halako hotz ikara sentitu nuenean. Zer bait oker zebilen, bat batean bizitza bitan bikoiztu izan- go balitz bezala, eta orduan argi ikusi nuen bizitzaren ondoan, hilt- zeta zegoela, «arin arina» dantzat- zen bezala, oinak airean, bere kaxa.

Hori eta ez beste zenbait gauza dira azkenean ikarututa uzten gaituzten gauzak.

Hondartzara iristen diren itsaso kolpeak baino ugariago ari dira iristen nigana itzal presentzi hauek.

Hemen bidaltzen dut itsasora beste mezu hau, globalizazio bale- ak irensten ez ba nau plaktonen moduan.

E Eztabaida info

Gazumen parke eolikoa egiteko proiektua aurrera doa. Zer iritzi duzu? Alde zaude? kontra? Zergatik?

■ **Peru.** «Gipuzkoako Foru Aldundiak Gazumen egin nahi duena hitz gutxi batzuekin laburbildu daiteke: Txikizio eta astekeria galanta! Ez dute lotsarik, proiektu honek ez du energiaren arazoa inola ere konponduko, sortuko duen energia kopurua barregarria izango da eta ordainduko dugun prezioa ber- ritz izugarri garestia! Gazume mendian sekulako errotatzarrak jarri nahi dituzte, mendi zoragarri honen perfila erabat puskatuz, gainera horretarako kamioiak eta makinaría erraldoia igotzeko sekulako pistak egin beharko dituzte etab, etab. Euskal Herria txikitzen ari dira inongo gupidarik gabe! proiektu desarrollista eta txikitzaile hauek (AHTa, Superportuak, autobaiak nonahi, harrobiak, erraustegiak...). EAJK duen jarrera kapitalista neoliberalaren islada besterik ez dira (...).»

■ **Edurne.** «nire ustez Peruk arrazo- zoi guztia du, negargurea ematen dit pentsatzeak mendiei begiratu eta errota puska horiek ikusiko di- tugunik eta gure ondorengoe- orain ditugun paisaia ederre- ak eza- gutuko ez dituztenik, honengatik,

aht-arengatik etab. Negargarria xoxa apur batzuegatik ama lurra saltzeal!».

■ «Negargarria eta nazkargarria xoxengatik gure ingurua suntsi- tzea, miserableak! utzizugue ar- nasten!».

■ «Ez zait egokia iruditzen, ingu- ruak desegitea gizakien interesere- rako. Betikoa. Gazumen parke eo- likorik ez!».

Europako hauteskundeak ekainaren 7an izango dira [gaur] Europako hauteskundeak. Bozkatzeko asmoa al duzu?

Bai. %82.

Ez. %18.

■ **Mikel.** Ekainaren 7an hautes- ton- tziak Iniziatiba internazionalista- ren papeletekin betekiko ditugu!! Europan ezker abertzalea entzun beharko dute! Ea europarrak behingoz hemen ematen diren es- kubide urraketa larriez (torturak, atxiloketa prebentiboak, ilegaliza- zioak, debekuak...) oharitzen diren! Hemen milaka herritarren eskubi- de zibil eta politikoak inolako lotsa- rik gabe urratzen dituzte eta Euro- parrek ez dute ezer esaten! Ba oraingoan entzun beharko gaituz- te!

A Argazki zaharra

Alegian, garai bateko bizimodura bueltatuko dira



ALEGIA ● Hilabete askoren antolakuntzak forma hartu du eta emaitza gaur bertan ikusiko da: *Garai bateko Alegia* festa. Alegia eraldatu egingo dute eta Kultur Batzordetik zehaztu dutenez, «helburua herrian garai batean nola bizi ziren ikustea» izango da. Jai hau goizetik hasiko da, 10:30 inguru- an, hain zuzen ere. Txorroskileroa, mikeleteak, apaiza, idazkaria, argaz- kilaria, margolaria, suhiltzailea, esnezalea, baserritarrak, ikazkina, maki- laria, musikariak, garai bateko ume jolasak, automobil zaharrak... ikuste- ko aukera izango da. Irudietan, garai bateko dantzaldia, jaietan borroka libreko apustu bat eta lkaztegitara doan bidea eraikitzen, 1922-23 urte bitartean. EDU ARRAYET



Poliespanezko bihotz

» Iritzia

Garbiñe Mendizabal

Tolosaldeko Garatzeneko ingurumen teknikaria

Badirudi ur-tanga beharrezko denean soilik erabiltzea, bertako ekoizleei garaiangaraiako produktuak zuzenean erostea edo kontsumo gutxiako bonbilak ohiko erorde erabiltzea bezalako ekintza xumeak ez dutela inolako garrantzirik nazioarteko ingurumenaren babesean. Baina ez dira neurri handiak, zaratsuak behar horretarako. Nahikoa da eguneroko bizitzan ohitura txiki batzuk soilik aldatzea. Gero eta mundu ekologikoago baten alde egiteaz gain gure ekonomia ere egingo baitugu horrela eta, garai hauetan, txanpon batzuk aurrerzte denei baitaotziko gure.

Horregatik, egunotan Nazioarteko Ingurumen Egunaren inguruan antolatu den Aste Berdea be-

zalako ekintza sinbolikoak beharrezkoak dira. Herritarrok ahaztu ez dezagun denon erronka delan ingurumena, ez bakarrik erakundeena. Ingurumen edukiko luzemertaiak heldu eta txikiak, konpostaiaren edo eguzki-labeen inguruko tailerrak edo Bigarren Eskuko Azoka antolatu ditugu,

esaterako. Halere, badakigu horiez dela nahikoa. Gure konpromisoak ekintza sinboliko horiez haratago joan behar dira.

Gure ondorengo belaunaldiek dugun guztiaz gozatzeko jarraitzea nahi badugu, ezinbestekoa da gure inguruarekiko jarreraren lehenbailehen aldatzea. Gure ga-

rapenarekiko. Gure kontsumo-arekiko. Eta ez da topikoa soilik. Bihotz berde eta eder batean murgildurik bizi garen Tolosaldean, baina badirudi hari bizkarra emanez biz garel. Txindokira igo eta paisaia ederretaz gozatu nahi dugu, baina lur horiek beti bezalaxe mantentzeko ez dugu gure baserriarren produkturik erosten, nondik ez datozen jakin gabe poliespanezko ontzietan datozen frutak eta barazkiak baizik. Eta horrelako hamaika adibide gehiago.

Ez baitugu ahaztu behar gure bihotza, Laboak dioten bezala, ahula dela, hauskorra. Eta denon artean indartu behar dugula, leihotik ikusten ditugun baso horiek berdatzen jarraitzea: norbanakoak, haurrak eta helduak, baina baita erakunde pribatuak eta publikoak ere. Denok baitugu zereginik ingurumenaren alde.



Herenegun, Villabonan, Emausek kartoiarekin lotuta tailerrak egin zituzten Aste Berdearen baitango ekitaldietan. I. GARCIA

G Gutunak

Pertsonaia ospetsu batekin bazkaltzeko gonbidapena

Jakina da ideiarik bikainenak Ostegun Gizona bezalako egun berezietan sortzen direla, eta aurkeztu nahi dizuedan hau ere, horrela joa zen. Zer da ba? Bazkari bat. Jakina da ere, gure herri honetan janaren inguruan makina bat ekintza burutzen dela, orduan zergatik da hau hain berezia? Ez, ez gara txuletona, bisigu edo babarrunarekin zerikusia duen ezertaz ari (beno, agian txuletek badute nolabaiteko protagonismoa, baina beste testuinguru batean). Bazkari honetan omendu nahi den pertsona elikadurarekin harreman estua du eta ez, ez gara Argiñanori buruz ari. Zorionez, gure herri honetan ere jaten ematen duen pertsona ugari dago, orduan zergatik merezi du gizon honek bazkari berezi bat? Hiru hamarkada eman dituelako jakinduriaren elikadura ondo prestatutako ontzietan, mimo handiz, eskaintzen eta zientzialari trebea bada ere, ez, ez gara Einstein buruz ari. Bibotedun artista honek, eta ez, ez da Dali, milaka ikasle gidatu ditu natur zientzia, matematika eta gai desberdinetan zehar. Zein da ba gizon misteriotsu hau? Melokotoiak, has zaitezte batuketak egiten!

Argiñano + Einstein + Dali + Laskorain Ikastola = Iñaki Mujika.

Ekainaren 20a, larunbata, da ikasle ohi talde batek Ostegun Gizeneko gau umoretsuan aukeratu zuten eguna. Tolosa koadrila eguna izango zela ez zekiten orduan, baina hala eta guztiz ere, ekimenarekin aurrera jarraitzea erabaki dute eta ikasle ohi, gaurkoak, guraso, irakasle eta Iñakirekin lan egiteko suertea izan duen oro dago konbidatua. Izena emateko ondorengo e-mailera mezua bidali: ohernandez@laskorainkastola.net.

Olatz Hernandez. Laskorain Ikastolako ikasle ohiaren izenean.

G Gutunak

Ekainaren 14an, Berrobira

Festara, festara, festara
Festarik behar bada
bego Donostian bai, bai.

Betikoa du fama
ondo merezia

Aspaldiko kanta herrikoi horretan Donostiaren lekuan Berrobi jarri behar dugu oraingoan. Hiriburuak ez, Gipuzkoako herrixo txikienetariko batek hartuko du festa eta fama ekainaren 14an. Berrobira.

Ekainaren erdialderako, Berrobiko Eskolako eta herriak jai, festa eta opari bikaina prestatu eta eskainiko dizue zuen goxamenerako. Bere txikitasunean, herri honen hiru kilometro karratu besterik ez du, urte askotan egin den jai

ederrena eta haundiena ospatzeko atarian jartzen zaituzte. Zer dela eta?

XXII. Gipuzkoako Eskola Txikien Jaialdia antolatu dugulako. Pelota partidua batean irabazleak lortzen duen poztasunezko zenbaki zoragarria da hogeita bira. Baina, azken tanto horretara iristeko zenbat izerdi, zailtasun, urduritasun eta agorabehera! Etajakina! Ilusio galanta partida irabazteko. 1988. urtean Bidegoienek bereganatu zuen aurrenako tanto itxaropentsua: bertan ospatu zen lehenengo aldiz Eskola Txikietakoko jai-giroko Elkartze Festa alai hori. Ondoren, urtez-urte, tantoz-tantoz, beste hogeitaz txiki (Aia, Gaztelu, Igeldo, Lizartza, Elgeta, Gabiri... eta azkena Zerain) hogei-

ta bigarrena egiteko aukera eman digute. Ekainean 14an, irabaziko dugu. Besoak goratu, txapela jantzi, ume gineneko adierazpena erabiliz, "infinito" arte garaile eta txapeldun osoak izango gara Eskola Txiki guztiak.

Orain 30 urte, «amateur» bezala hartuak ziren Eskola Txikiak. Herri haundietako «konzentrazio» ikastetxeetan omen zeuden ikasle eta irakasle «profesionalak». Hauetan ikasten eta hezten omen zen ondo. Eskolatxoetan zeuden guraso eta irakasleek "entrenazari" tinko heldu zioten eta urte gutxiren barruan, baztertua, ahaztua zegoena behar zuen mailakora bidean jarri zen. Ez zen lan makala izan!

Gaur egun, Gipuzkoan 1000

ikasleketan dituzte 26 eskola txikiak. Guztiz sustraituta daude herri bizitzan, modernizatuta, eta etengabe jarduten dute gure ametsetako kabi goxoa eraikitzeke ahaleginean.

Jaialdi bat, egin den eta egiten den lanaren uzta da. Poza eta alaitasuna dakartzkigu. Ekainaren 14an Berrobin elkartuko gara eta denok izango gara protagonista: umeak, gurasoak, irakasleak, ikasle ohiak, herritarrak. Bertan, egon ziu, festaren zurrumbilaoan, jolasak, algarak, elkarlana; ametsak, eta nagusiki, orainaren eta etorkizunaren ilusioa nagusituko zaizkigu.

Eskola Txikien Festaren antolaketa komunikazio taldea.

H Hilberriak

NIKOLAS SORAZU ARANBERRI

-Goian bego-

Zerbat txantxa eta algarra
ote g'fuan jaulkia
horretarako nahiko huen
nik edo zozotarikia
umezurte zudek hire sendia
hutsik mahala eta aukia
nuntziatuta jama zuzuezen
ordua eta toka.

Hire lagun: Jose eta Malere, Manuel eta Olatz, Joxeluis eta Malere, Polo eta Lardes, Anastasio eta Olatz, Bizente eta Rosa, Jabi eta Olatz, Joxanton eta Erkami.

Haren animaren alde ototz bat eskatzen dizute eta arren etor zaitzela BIHAR, ASTELEHENA, arratsaldeko ZAZPI ETA ERDIETAN, Azpeltiko Soreasuko Sebastian Deunaren paroki etxean, gorpua bertan dela egingo den hilitera. Aldiz, aurretik, mila esker.



AZPEITIA
2009ko ekainaren
7a

NIKOLAS SORAZU ARANBERRI

2009ko ekainaren 7an hil zen, 55 urte zituela. Elizakoak eta Aita Santuaren Bederikapean hartu ondoren.

-Goian bego-

Haren emaztea: Pili Arregi seme-alabak: Iosu eta Maite eta Naroa; ama: Felipa Aranbarri (Pacho Sorazuren alargana); sendiak: Ramon eta Paliza, Jesus eta Pili, Juan Mari eta Ana, Anaseta, Juergo, ezkon gurasoak: Pili Arregi (Nieves Aguirren alargana), koiztu-koiztuak: Juan Luis eta Lardes, Jose Ramon eta Arantza, Lardes eta Juan Mari; osabe-ahabak: Iñaki, Lehenagusiak eta gainerako ahaidak; haren animaren alde ototz bat eskatzen dizute eta arren etor zaitzela BIHAR, ASTELEHENA, arratsaldeko ZAZPI ETA ERDIETAN, Azpeltiko SOREASUKO SEBASTIAN DEUNAREN paroki etxean, gorpua bertan dela egingo den hilitera. Aldiz, aurretik, mila esker.

Hilbidetokioa: Loiolako Inazio Hiribidea 9-4 ezkerre
Oharra: Hilbelak Azpeltiko CARMONA EHORZKETAKO TANATORIOAN egongo da



AZPEITIA
2009ko ekainaren
7a

NIKOLAS SORAZU ARANBERRI

Herenegun hil zen, istripuz.

Ez nau izutzen negu hurbilak
uda betezko beroan
badakidalako irauten duela
orainak ere geroan.

Ikasleri Ikastolako guraso, irakasle eta ikasleek familiarik elkartasuna adierazi nahi die une zail honetan
Kooperatibako Batzordea



AZPEITIA
2009ko ekainaren
7a

FUNERARIA VASCONGADA
EHORZKETAK

KONDEKO ALDAPA, 5 - 20400 TOLOSA
TELEFONO: 943 67 00 FAXI: 943 670719
WWW.FUNERARIIVASCONGADA.COM

ZERBITZU IRAUNKORRA
902 402 900

Eragin baikorra izan du eguraldi epelak azokan, kalean jende ugari ibiliz

PABLO ALBERDI

Egun hauetako eguraldiak oso eragin baikorra izaten ari da gure inguruko baratzetan. Izandako eguzkia eta temperatura altuak, egun hauetako euriarekin batuta asko laguntzen ari dira barazkiei, nobedadeak sorera. Atzo adibidez, aurtengo lehenengo ibarra piparrak ikusi ahal izan genituen, eta hauekin, babak, illarrak, patata berriak, edo eta tipulinak besteen artean.

Berdura plazan ere izan ziren aipatzekoak. Apaingarriko landareen zerrenda eta itxura ikusgarriak izan ziren. Baratzarako landareen postuetan erosle asko zeuden, egun aproposetan bait gaude.

Perretxiko eskaintzak ere gora egin zuten. Bartako zizak eta onddo bakarren bat ere izan ziren, eta hauekin ziza horiak, eta kanpoko ziza eta onddoak.

» ATZOKO AZOKA

BERDURA PLAZA	Merk.	Gares.
Landareak		
Erroneroa	4,00	6,00
Larrosa	10,50	-

BERTAKO PRODUKTUAK

Fruta		
Intxaurra	2,50	4,00
Urra	2,00	3,00

Perretxikoak

Ziza	20,00	42,00
Onddoa	24,00	32,00
Ziza horia	26,00	-

Barazkiak (kiloa)

Porruak	1,00	3,00
Ibarrako piparra	10,00	-

Besteak

Arrautzak	2,50	-
Madalenak	3,60	-

Gaztak

Gazta berria	17,00	-
Behigazta	8,00	9,00

PRODUKTU EKOLOGIKOAK

Erremolatxa	1,60	-
Txitxirioak	2,40	-

Tolosako Udala

BAKARRIA

Tolosako Udalak, aldi baterako Ingurugiro eta Herri Partaidetzako Agente Laguntzailea kontratatu nahi du.

Oinarriak eta eskaera egiteko orriak, Tolosako Udalteko Informazio eta Erregistro Zerbitzuan daude interesatuen eskura. Plaza Zaharrako 6 A zkan, edota udaleko web orrian (www.tolosakoudala.net).

Eskaerak aurkezteko epea 2009ko ekainaren 12an, 13:00etan, bukatzen da.

Tolosan 2009ko ekainaren 2an.
ALKATEA,
JOKIN BILDARRATZ SORRON

Espero baino eguraldi hobearrekin igaro dute II. Zaldi Eguna 41 zaldunek

Leaburu » Gaztelutik Leabururainoko bidean zaparradak harrapatu zituen, baina ez zuen giroa inolaz ere zapuztu.

NEREA URBIZU

Leaburuko II. Zaldi Eguna parte hartu zuten 41 zaldunen artean sentazio bikaina utzi zuen. «Eguraldi ona» egin zuela adierazi zuten parte hartu zutenek, «baina Gaztelutik Leabururako tartean euri zaparradak harrapatu genituen».

09:00ak pasean abiatu ziren 35 bat zaldun eta Ulira iristean Leiztatik joandako 6 zaldun elkartu ziren beraiekin. Bertatik, «hamaketako ederra» egin ondoren, biderekin jarraitu zuten. Lehen zaldunak 14:00etan hasi ziren iristen Leaburuko kaskora eta bertatik, zaldiak frontoiaren kanpoaldean utzita, bazkaldu zuten 80 lagun inguruk.

Ulin Leitzakoekin elkartu dira

Euskal Herriko hainbat txokotatik hurbildu ziren Leaburura. Batzuk Ameriketako bakeroen itxura zuten, baina haiek dioten bezala, «harrikada moduko bat da hau, guri mundu hau gustatzen zaigu, eta horrela janzten gara!»

Leitzako lagun batzuk behintzat, Ulin elkartu ziren Leaburutik abiatutakoekin eta handik bukatu arte taldean joan ziren. Handik, Leitzara berriz zaldian bueltatu ziren.

Arratsaldean, berriz, heziketa naturala (Jose Mari Goldaratz) eta heziketa klasikoak izan zuten bertarututakoek, beste gauzen artean.



Zaldun batzuk Leaburura iristen, 15 kilometro inguruko bira egin ondoren. ESTI EZEIZA

» INKESTA

1. laz egin zenuen ibilbide hau?



«Zaldiarentzat hau ez da ibilbide zaila»

Ixiar Oria (Korirekin)

OIARTZUN

1. Ez nuen ibilbidea ezagutzen, asko gustatu zait, paraje politik ditu eta eguraldi ona egin digu. Kori lasai ibili da. Leitzakoa eta As-teasukoa egin ditugu. Zaldiarentzat ez da ibilbide zaila. 10:00ak aldera abiatu gara, baina 15 bat kilometro edo egin ditugu.



«Igoeran lohia zegoen, bestelakoan ondo zegoen»

Joseba Barrenetxea (Elurrekin)

ORMAIZTEGI

1. Honetan berria naiz, lehen aldia da egiten dudana eta zaldiarekin ere gutxi ibili naiz, baina asko gustatu zait. Igoeran lokatza zegoen baina ondo zegoen bestela bidea. Oso polita izan da, berriz egitekoa. Ibilbidea nahiko laua da, zaldiarentzat nahiko eroso.



«Gaztelurainoko bidea lehendik ezagutzen nuen»

Txoma Barriola (Xabor)

LEITZA

1. Gazteluraino ezagutzen nuen bidea, ez Leabururaino. Oso gustura ibili naiz, eguraldi ona egin digu. Espero baino lohi gutxiago zegoen, baina hala ere zaldiak irristatu dira lekuren batean. Xabor ohituta dago ibiltzen. Behin Leiztatik For-migalera joan ginen...



Landare ederrak balkoiak edertzeko

VILLABONA » Villabonan Atari Bizi ekimenaren baitan atzo landare koloretsuak banatu zituzten herritarren artean. Bakoitzak nahi zuen kolorea aukeratzaren zuzen, balkoiari hobekien egokitzen zaiona edo, kontuan

hartuz. Ondoren, lore hauek balkoietan jarri beharko dituzte hauek edertzeko. Udalak iaiz egin bezala, saria eramango du balkoia politena jartzea lortzen duen bizilagun horrek. ESTI EZEIZA

Laburrak

IX. Manuel Irujo saria Juan Joxe Agirre fraidearentzat

ALEGIA » Juan Joxe Agirre fraideari eman diote IX. Manuel Irujo saria. Lazkaoko beneditarren komentuko fraide eta liburuzaina da Agirre alegiarra. Lizarran eman zioten saria, 40 urtez Euskal Herriko dokumentuak gordetzeko eta mantentzeko egin duen lanagatik.

Ikastolaren urteko batzarra egingo dute etzi

IRURA » Iruako Ikastolak urteko batzarra egingo du eraikin berrian, etzi, asteartea, 19:00etan. Bertan ohiko gaiez gain, kilometroetako memoria eta balantze ekonomikoaren inguruan hitz egingo dute. Kilometroetan parte hartu zutenei joateko deialdia egin dute.

Batelen arteko lehiarekin ekin diote Koadrila egunari

Anoeta » Lehen aldiz desafioa jokatu zuten Oria ibaiko uretan; lau taldek hartu zuten parte; ondoren bazkaria egin zuten.

ESTIEZEIZA

Herrietako jaiak, normalean txupinazoa jaurtiz hasten dira, baina Anoetako koadrilek aurre hartu diote, eta beraien eguna lehenago ospatzea erabaki dute.

Atzo, estreinakoz, koadrilen arteko batel txapelketa jokatu zuten. Errota poligonoaren ondoan jende ugari elkartu zen atzo goizean, Oria ibaian arraunean ari ziren gazteak animatzeko. Lau batel aritu ziren lehiari atzo, *Lasto pardak*, *Bai naparrak*, *Ote zuztarrak* eta *Sarde kirtenak*. Bi tandatan hartu zuten parte, lehendabizikoan *Lasto pardak* eta *Bai naparrak* atera ziren, bigarrenean berriz, beste bi taldeak. Lehia gogorra izan zen, ahalik eta denbora gutxien egiten saiatu baitziren arraunlariak.

Ondoren, sanjoanetan parte hartuko duen Anoetako Herria batela aurkeztu zuten. Iaz ere parte hartu zuten, eta aurten esperientzia errepikatzea erabaki dute. Oraingo honetan, patroil lanetan Aitor Urkola ariko da, eta arraunean berriz, ondorengo hauek: Beñat

Luluaga, Aitzol Esnaola, Ander Jauregi eta Endika Esnaola.

Arraun kontuak alde batera utzita, txupina botatzeko garaia iritsi zen. Hau bota ostean, kalejiran atera ziren, festa giroa herri guztian zehar zabalduz. Ondoren, denak frontoian elkartu ziren bazkaltzeko. 240 lagun inguru elkartu ziren paella jatera. Gero, jolasteko garaia iritsi zen, eta goizeko lehiari jarraipena emanaz, baina oraingon, parte-hartzaile gehiagorekin, jolasei hasiera eman zieten.

Gaur, dantzari txiki eguna

Koadrilen egunaren ostean, gaur dantzari txikien txanda da. Hasteko 10:00etatik aurrera, eta goiz osoan zehar, baserritarren azoka izango da plazan. Ekitaldi hau Anoetako AHT Gelditu! Elkarlanak antolatzen du. Azokako postuen alboan, talogileak eta dultzaineroak ere izango dira.

10:30ean berriz, Ikaztegieta, Irura, Tolosa eta Anoetako dantza taldeen kalejirari hasiera emango diote. 12:00etan, denak elkartuko dira plaza txikian eta emanaldia eskainiko dute.

Arratsaldean, judo eta gimnastika erimikoko ikasleen emanaldia izango da kiroldegian. Eta eguneko ekitaldiei amaiera emateko, Loatzo Musika Eskolako kontzertua izango da plazan.



Lau batek hartu zuten parte Koadrilen arteko lehen batel txapelketan. ESTIEZEIZA



Euskal jai jendetsua eta herrikoia

KIROLAK » Anoeta herrian bertan, batzuk arraunaz gozatzen ari ziren bitartean, beste batzuk, Bodegon Benta Aldearen atarian, herri kirolak ikusten ari ziren. Bertsolariek, Milian Telleria eta Jokin Sorozabalek eman zioten hasiera ekitaldiari, beraien saioarekin. Ondo-

ren, Goenatxo harri-jasotzailearen txanda izan zen. Honek, harri ezberdinekin egin zituen erakustaldiak. Aizkolariak ere ez ziren falta izan, Mendizabal bakarka aritu zen zutikako egurrak moztzen. Jarraian, Belauzaran eta Garmendia elkarren aurka aritu ziren. **ES**

III. Emakumea Pilotari Eguneko txapela Getariara

Irura » Hernaniko bikotearen aurka 11-16 egin zuten; guztira 8 bikote aritu ziren lehiari; jai eguna ederra izan zen atzokoa.

ERREDAKZIOA

III. Emakumea Pilotari Eguna jai giroan garatu zuten atzokoa. Iru-rako pilotalekua izan zen horren lekuko. Bertan 80 pilotari inguru bildu ziren Emakumea Pilotari proiektuaren baitan, aurtengo ikasturtean emakumeen 20 urte-tik gorako paleta ikastaroetan aritu direnak, hain zuzen ere.

Emakume guztiak goizeko 10:00ak aldera heldu ziren; besteak beste, Emakumezkoen Gipuzkoako Partaidetzako II. Txapelketa Herrikoia jokatu zuten.

Txapelketa honetan ikastaroa garatu den herri bakoitzak bere or-



Hernani (gorriz) eta Getariako (urdinez) artean egon zen azken lehia. **N.L.**

dezkaritza izan zuen; hala, 8 bikote aritu ziren: Arrasate, Azkoitia, Azpeitia, Getaria, Zarautz, Donostia, Hernani eta Tolosako pilotariak. Final-laurdenak, finalerdiak eta fi-

nala jokatu zituzten Irurako Udala Pilotalekuan. Eskualdekoak bidean geratu ziren eta guztietan oenak Getariakoak izan ziren, finalean 11-16 irabazi baitzieten Herna-

kioei. Animo oihuak ere ugariak izan ziren, musika eta guzti. 14:00a aldera amaitu zen finala eta ondoren, sariak banatu zizkieten irabazle eta partaideei.

Aurretik paleta saioak ere izan ziren, final-laurdenen eta finalerdien artean jokaturikoak. Benetako jai giroa, ordea, ondoren hasi zen. Mahaiaren bueltan bildu ziren guztiak, bazkari legerako. Trikitilariak ere ez ziren falta ikasturteko lana merezi bezala ospatzeko, eta ezta oroigarriak ere.

2004. urtean abiarazi zuten proiektua

Gipuzkoako Euskal Pilota Federazioak 2004. urtean jarri zuen martxan Emakumea Pilotari proiektua. Helburua emakumea pilotara gerturatzeko izan du eta lortu ere lortu du, azken urte hauetan emakume ugari hartu baitute parte ikastaro nahiz txapelketetan.

Atzoko egun, beraz, horretarako zen garrantzitsua, emakumearen papera goraiatzeko. Emaitzak ez zuten protagonismorik, festa eta aldarrikapen kutsua izan zuten egunak eta, noski, iluntzera arte luzatu zen jaiak.

Iragarki laburrak

SALGAI

■ **Motorra.** Honda CBR 600a salgai, 15.000 kilometro. 2003. urtekoa. Extrekin eta zirkuitoetarako egokitu. 5.000 euro. Harremantarako deitu 667 41 88 75 zenbakira.

■ **Taxi lizentzia.** Tolosako taxi lizentzia (plaza) saltzen dut. Kotxearekin edo kotxerik gabe. Informazio gehiago nahi izanez gero deitu lasai 616 542 960 telefonora.

Areson pasa den martxoaren 18an hasi ziren Pilates, aerobik eta mantentze soinketako klaseak. Herritarrek bultzatuko ekimen arrakastatsu hau pasa den maiatzean amaitu zen.

Soinketa gelako musika

ASIER IMAZ

Ana, Ane, Oihana, Naiara, Irantzu, Lorea, Juana Mari eta Oihana 8 aresolar dira.

Talde honetako hainbat kidek, urte hasieran, herrian zer bait egin nahi zutelako pentsatu zuten: «Kirola egin nahi genuen eta mugitzen hasi ginen. Lehenik Udaletxera joanginen, aerobik-eko edo Pilateseko klaseak Areson antolatzea posible ote zen jakitera. Udalaren eta Kirol Mankomunitatearen bidez irakasle bat lortu genuen, astean behin ordu eta erdiko klaseak emango zizkiguna. Ondoren herrian zerrendak jarri genituen eta...»... Eta zortzi emakumeko taldea osatu zuten.

Irakaslea, Nani, martxoaren 18an iritsi zen Aresoko Eskolako Soinketa gelara: «Berandu hasi ginen eta ez genuen aurretik denbora asko. Normalean urrian hasi ohi gara maiatzean amaitzeko. Behin hemen, berdin zitzaizenez zer egin, ordu eta erdiko ekimena hiru zatitan banatu genuen. Horrela, asteazkeneko ariketa desberdinak tartekatzen ditugu: mantentze soinketa, aerobik eta Pilates».

«Zer bait desberdina»

Aresoarrek lehen ere ezagutzen zituzten ariketa hauek: «horrelako ikastaroak herrian duela 3 edo 4 urte antolatu ziren». Azken urteetan berriz Lekunberrira, Berrobira edota Villabonara joan dira.

Gazteenek lantegi hauetan tabernaren edo geldi egonaren alternatiba bat ikusten dute: «Arratsaldean zer bait desberdina egiteagatik. Bestela beti tabernan edo etxean egoten gara eta pixka bat mugitzeagatik. Gero batzuan minutu egoten gara baina gutxitan. Aukeran astean behin ez da asko baina nabaritzen da, gero odolak ere hobeto zirkulatzen du».

Ohianak bere aldetik lehenik gogor xamar aurkitzen dela onartzen du, baina gustura ibiltzen da: «aerobic eta mantentze soinketa gustatzen zaizkit. Jokoak egiten ditugu, musika entzun dugu eta barre batzuk ere botatzen ditugu».

Anaren arrazoiak desberdinak dira. Duela 9 hilabete inguru bigarren haurra eduki zuen eta gaur egun eszedentzian aurkitzen da: «Etxean eta haurrekin egunero kotasun batetara ohitzen zara egonera honetan. Horregatik, noizean behin normaltasun horretatik des-konektatzea ondo etortzen da».

Hiru musika desberdin

Lehen 30 minutuetan musika lasaia jartzen du Nani. «Mantentze soinketan aerobic-en baino ariketa lasaia egiten ditugu. Mugimendua badago baina adibidez bizkarreko mina edota herniak dituzten pertsonentzat egokiak da soinketa mota hau: artikulazioen lanketa, luzaketak, malgutasun ariketak, kilo bat edo bi kiloko pisuekin mugimenduak, iraupen fisikoa...».

Bigarren zatian musikak protagonismo handiagoa dauka. Erritmoa azkartu egiten da eta honekin batera gorputzaren mugimenduak. Nani aurrean jartzen da. Bere atzean bilara osatzen dira eta irakasleak esaten duenari kasu egiteaz gain, bere mugimenduak jarraitu behar dituzte. Izardi tantak gero eta nabariagoak dira, ez baitago atsedean hartzeko denbora handirik. Aerobic-aren txanda: «Musikak berezia izan behar du, ez du edozeinek balio, 32 denboratan neurtu egon behar da. Aerobic-ean urrats desberdinak tartekatzen dira, amaieran koreografia antzeko bat sortuz. Ondoren behin eta berriz errepikatzen dugu koreografia hori».

Klasea amaitzeko ordu erdi falta denean Nani musika aldatzen du. Dena lasaitu egiten da orduan. Lurrean belaki urdin batzuk jarri eta gainean etzaten dira. Gomazko zinta urdin luze bat oinaren azpian jarriz hanka gora jasotzen dute, beste hankarekin eta gorputzarekin 90 gradutara. Arnasa sudurretik hartu eta ahotik bota. Sakon. Goputzeko zati desberdinak lantzen dituzte, astiro-astiro. Naniaren esanetan Pilates aurrekoak baina ariketa finkoagoa da: «arnasketa, zehaztasuna, lantzen ditugu. Pilates egiterakoan abdominalak lantzen dira, abdomena uzkuertzean datza. Horretarako tresna desberdinak erabiltzen dira: zinta elastikoak, baloiak, pisuak...».

Ea hurrengo ikasturtean...

Ikasturte honetako azken ariketak maiatzaren 27an egin zituzten 8 aresoarrek Nanirekin. Aurrera begira jarrita ez dakite ziur zer gertatuko den, hori bai gauza bat argi daukate: «Hurrengo urtean ahal bada berriro saiaturko gara antolatzen».

Horrela bada agian hurrengo ikasturtean herritar gehiago elkar-tutuko dira Soinketa gelan, emakume nahi gizon.



Aresoko Eskolan, soinketa gelan, 8 herritar elkartu dira maiatzera arte asteazkeneko Nanirekin batera. Mantentze soinketa, aerobic eta pilates ariketak egiten zituzten bertan, musikaren laguntzaz. Goiko irudian aerobik egiten, erritmo biziz gainera. Soinketa gelako beste bi irudietan pilateseko ariketa lasaigarriak ikusten dira. Azken irudian, soinketa gelara begira bi haurtxo agertzen dira, barnean zer gertatzen den jakiteko asmoa dutela dirudi. Deigarria baita musika desberdinen erritmoan egiten duten guztia. ASIER IMAZ

Ehnelur kooperatibak kanpaina abiaraziko du Tolosaldean, baserrirako aseguru berezia eskainiz; besteak beste, erantzukizun zibila sartzen da aseguru honen barnean.

Baserritarren zerbitzura

NOELIA LATABURU

Hoge urte daramatza lanean Ehnelur-ek, Euskal Herriko nekazarien elkartasunak. EHNETik, Gipuzkoako nekazarien sindikatutik, sortu zen, baserritarren arazoei erantzun zabal ematen saiatzeko, zerbitzu zabal eskainiz. Bi bulego ditu, bata Tolosan eta Azpeitian bigarrena. «Nekazariak behar dituen zerbitzuak eskaintzea da Ehnelurren helburu nagusia», azaltzen du Oihana Munduate Ehnelur kooperatibako langileak. Beste kooperatiba bat ere badago, Gudi izenekoa. «Denda bat bezala da, nekazariak behar duten produktuak lor ditzakete bertan; Anotan dago», azpimarratzen du Munduatek.

Ehnelur-etik eskaintzen dituzten zerbitzuak aseguruak, ingenierritza zerbitzua, aholkularitza juridiko eta teknikoa, baserritarrentzako ordezkapen zerbitzua, errenta aitortpena eta gasoilaren salmenta dira.

«Baserrria ondo babestuta al daukazu?»

Hain zuzen ere, Ehnelur-eko aseguru sailetik, kanpaina abiaraziko dute aste honetan bertan Tolosaldean, baserrirako aseguru berezia eskaintzeko. «Tolosaldean ekingo

Aseguruak, aholkularitza, ordezkapenak, errenta aitortpena eta gasoila dira Ehnelur-en zerbitzuak

Ehnelur-ekin aseguraturuta ez daudenekiko konpromisoa erakusteko abiarazi dute kanpaina

diogu eta gero beste eremuetara ere zabalduko dugu, Gipuzkoa osora», azaldu du Sonia Zabalak.

«Baserrria ondo babestuta al daukazu?». Galdera hau egingo diete oraindik aseguru Ehnelur-ekin kontratatutik ez duten baserritarrei. Aseguru honek «abantaila ugari ditu»; batetik, koberturarik zabalena eskaintzen du, preziorik egokienean; «suteak, kazkabarrak, tximistak, animaliek eragindako kalteak, ... guztiak babesten ditu».

Bestetik, aseguruaren barnean baserriko erantzukizun zibila sartuta dago. «Honek garrantzia handia du, animaliek edo belar boleak hirugarren bati eragindako kalte-

ak sartzen dira, esate baterako», zehazten du Ehnelur-eko Miriam Arregik. Hain zuzen, «puntu hau da bereizgarriena beste aseguru-ekiko».

Halaber, baserrria egurrezko egitura izanagatik ez diete igoerarik aplikatzen, ez eta baserrria herritik urruti egonagatik ere.

Nekazariarentzat erraztasun guztiak eskaintzen dizkiete

Gipuzkoan 6.000 baserri inguru daude. Ehnelur-ek hauetako batzuk biltzen ditu eta «besteekiko konpromiso berezia eskaini nahi» dutelako abiarazi dute kanpaina hau.

Ehnelur-ek hoge urte hauetan baserritarrei zuzendutako produktu berezi batzuk eskaintzea lortu du, «beste edozein konpainiak edo agentziak eskaini ezin dituen», garantiekin. «Poliza baserrrian dauden beharretara egokitu-ta dago» eta kanpainaren helburua aseguratu gabe edota beste agentzietan aseguraturuta daudenetara ailegatzea da.

«Baserritar askok ez dakite oso ondo zer kubritzen dien euren aseguruak, zerbait gertatzen zaien arte». Ehnelur-ek erraztasun guztiak eskaintzen dizkiete baserritarrei. «Interesa duenarentzat baserriraino joateko prest gaude», dio Munduatek. Bertan lehen balorazioa egingo lukete, «gertutasuna ere eskaintzen dugu, eta gestio guztiak gure esku doaz».

Bestelako aseguruetan ere eskaintza zabal

Ehnelur-ek aipaturiko aseguru honetaz gain, baserrirako aseguru osagarriak ere eskaintzen ditu, AXA konpainiaren eskutik: pabilioiak, traktoreak, remolkeak, autoak, furgonetak, 4x4 ibilgailuak edota agrosegurua. Azken honen baitan ume egite txarrak, hilda jaiotzen diren txahalak, kuajarrak, ganaduen istripuak, mamitisak, neumonia, ... barneratzen dira.

Hauetan, gainera, %35 eta 60 bitarteko diru laguntzak eskaintzen dituzte eta ordaintzeko garaian ere hainbat erraztasun jartzen dituzte nekazarien zerbitzura.

Halaber, kale pisuak, txaletak, nekazaritza turismoak, autoak, enpresak, dendak eta tabernak bezalakoentzat era guztietako aseguruak dituzte. Bizitza, istripu eta osasun aseguruak ere lantzen dituzte, baita finantza produktuenak ere.



Baserritarrei zuzenduriko produktu bereziak eskaintzea lortu du Ehnelur-ek azken 20 urte hauetan. ENERITZ MAIZ

«Baserri batean ezinbestekoa da aseguru on bat izatea»

ROSA ARREGI | Baserritarra

Amasa » Baserriko lanek edota naturak berak eragin ditzakeen ezbeharren aurrean «beharrezkoa da segurtasuna bermatzea».



I. TERRADILLOS

N. LATABURU

Baserriko lanak tartetxo batez utzi eta Amasako Agaraizberri baserrriaren atari loretsuan Rosa Arregik (Amasa, 1967) Ehnelur-ek eskaintzen duen aseguru duela azaldu du eta «oso pozik nago benetan, inoiz ez dut arazorik izan», gaineratu du. Aseguru ona izatearen garrantzia ere azpimarratu nahi izan du, «nahikoa lan badago eta bestelako gauzekin arduratzen hasteko».

Baserri batean ondo aseguratu beharreko gauza asko dago, ezta?

Baserrian lan egiten dugunok ondo dakigu hori, bai. Ni orain dela 14 urte etorri nitzen baserri honetara eta aseguru asko behar direnez, sindikatuaren bitartez Ehnelur-ekoekin jarri ginen harremanetan eta beraiekin dugu guztia aseguraturuta.

Zer irizpide erabili zenituen aukeraketan egiterakoan?

Senarra eta biok hainbat ate jo ge-

nituen eta eskaintza guztien artean iruditu zitzaigun beraiek zutela onena.

Baserri batean ezbehar asko izan daitezke. Zuek ere izan al duzue horrelako zerbitzu?

Azkena haizeteen ondorioz izandako kalteena izan zen. Ehnelurera zuzenean bulegora deitu eta beraiekin jarri ginen harremanetan. Beraiek arduratu ziren guztiaz. Egia esan, oso zerbitzu ona eskaini ziguten. Beste behin ere kotxearekin izan nituen arazoak eta hau ere azkar konpondu zidaten.

Ez da, beraz, erakina bera bakarrik aseguratzeko.

Ez, ez, guri dana hartzen digu. Kotxeak, makineria, bizitza aseguruak, baserrria, ... baserri batean onena eta ezinbestekoa da aseguru on bat izatea.

Zerbitzu gertatzen denean, zein da prozedura?

Nik zuzenean Tolosako Ehnelurren bulegoko telefono zenbakira deitu izan dut eta beraiek jartzen dira seguruarekin harremanetan. Gestio horiek beraiek egiten dituzte, horrek ere segurtasuna ematen du.



Argitaratzailea: Tolosa Herria Hedabideak S.L.
Lege Gordailua: SS-0398-03
Zuzendaria: Noelia Lataburu
Egoitza nagusia: Araba Etorbidea 5, atzea, Tolosa.
Telefona: 943 65 56 95. **Faxa:** 943 65 00 18
Leitza: Herriko plaza, 1. 687 410 118
E-posta: tolosaldean@tolosaldeko hitza.info.
Webgunea: www.tolosaldeko hitza.info

Zuzendariordea: Iñigo Terradillos. **Kudeatzailea:** Maider Garaikoetxea.
Publizitatea: 661 678 818 tolosa@iragarri.net.
Tolosa: 687 410 082-687 410 033. tolosa@tolosaldeko hitza.info.
Villabona: 687 410 022. villabona-aizondo@tolosaldeko hitza.info.
Anoetalea: 687 410 022. anoetaldea@tolosaldeko hitza.info.
Ibarraldea: 687 410 032. ibarraldea@tolosaldeko hitza.info.
Alegialdea: 687 410 034. alegialdea@tolosaldeko hitza.info.
Leitzaldea: 687 410 118. leitzaldea@tolosaldeko hitza.info.

Tolosa Herria Hedabideak S.L.ko kideak:

BERTAKO
HEDABIDEAK



eta Tolosaldeko eta
Leitzaldeko beste 77 eragile

Hitza-k Bai Euskarari



'Hitza' diruz laguntzen duten erakundeak. Udalak: Aduna, Alegia, Alkiza, Altzo, Amezketa, Anoeta, Areso, Baliarrain, Belauntza, Berastegi, Elduain, Gaztelu, Hernialde, Ibarra, Ikaztegieta, Irura, Leaburu, Leitza, Tolosa, Villabona, Zizurkil

Gipuzkoako
Foru
Aldundia

Hitza-ko bezeroen arreta zerbitzua (zalantzak argitzeko, harpidedun egiteko): **902 82 02 01**

A Agenda

Azoka

■ **Tolosa.** Artisautza azoka
10:30etik 14:00etara eta 16:30etik
20:30era..

Erakusketa

■ **Villabona.** Oinikarrik eta Udalak
antolatuta, XVI. Mendeko jantzien
erakusketa Gurea aretoan, Dantza
Astearren barruan.

Zinema

■ **Tolosa.** Sicko filma Leidor areto-
an igandearen 22:00etan eta astele-
henean (Ikuslearen eguna)
20:30ean. *Nunca es tarde para ena-
morarse*, 19:30ean. *Ponyo en el
acantilado* haurrentzako filma
17:00etan.

» GUARDIAKO FARMAZIAK

Gaur

■ **Arribe.** Garmendia, A. Kale Na-
gusia. 112.
■ **Irurtzun.** Gastearena, M. Amaya
kalea. 112.
■ **Ibarra.** Iturrioz, I. Euskal Herria, 3.
943 670915.

Bihar

■ **Lekunberri.** Azpiroz, M.A. Aralar
kalea, 43. 112.
■ **Tolosa.** Tolosa, M.I. Kale Nagu-
sia, 7. 943 670648.

HITZAK ez du bere gain hartzen
egunkariaren adierazitako esaneri
eta iritzien erantzunik.

Hilabeteko lehen larunbatero egingo duten bezalaxe, atzokoan ere sukaldari bat aritu zen lanean Zerkausian, Slow Food-aren ekimenaren baitan; azokako produktuak erabiliz prestatu zuen platera.

Zerkausia sukalde onenaren pare



Goizean goiz hurbildu ziren sukaldariak Zerkausira, lehengaiak erosi eta ondoren, sukaldatzen hasteko. NEREA URBIZU

ERREDAKZIOA

Mexikar erara prestatu-
tako babarrunak, ogi-
tartean jan ostean, atzo
mexikar batek prestatuta, baraz-

kien menestra jateko aukera izan
zen Zerkausian.

Enrique Fleischman sukaldaria aritu zen lanean beste bi lagunekin batera. Ilarrak, tomateak, azenarioak, kalabazina, babak... erosi zituzten lehendabizi azokan, eta ondoren, jendearen aurrean eltzekak eta suak jarri, eta prestatzen hasi ziren. Sukaldatzerakoan zenbait arazo izan zituzten, eta beraien esanetan, ezin izan zioten puntua hartu. Hala ere, jendea gustura agertu zen dastatzeko garaian. Hala, 12:00ak aldera hainbat lagun elkartu ziren sukaldariak egindako lana ikustera eta baloratzen. Hurrengo hilabetearen beste sukaldari baten txanda izango da.



Jende ugari hurbildu zen menestra dastatzeko asmoz. NEREA URBIZU

A Agurrak



Zorionak!

Iraitz Izagirre Ugartemendia. Gaur 3 urte. Zorionak eta ondo zaindu zure ahuntz taldea. Muxus!



TOLOSAKO
INMAKULADA
IKASTETXEA



Kondeko aldapa 5B Tolosa
www.inmakuladatolosa.com
943673629

HEZIKETA ZIKLOAK

Goi maila

- Gizarte Integrazioa
- Haur Hezkuntza
- Osasun Dokumentazioa
- Diagnosi Irudia

Erdi maila

- Erizaintza laguntzailea
- Farmazia teknikaria

AURREMATRIKULAK
EKAINAK 1-12
BITARTEAN

ZATOZ GU EZAGUTZERA